


# NAFAR LAPURTERA

AMAIA OSA 3A

# ZER DA?

Iparraldeko euskalkia da, Lapurdin, Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaiko Luzaide ibarrean eta Zuberoako ipar-mendebaleko zenbait udalerritan hitz egiten dena.



# EZAUGARRIAK: FONETIKA

1- Euskalkiaren eremu gehienez arrotza da *i* bokalak eragindako bustidura; *il*, *in* eta *it* bere horretan esaten dira gehienetan: ‘gainetik’ (eta ez ‘gañetik’), ‘atezaina’ (eta ez ‘atezaña’), botila (eta ez ‘botilla’), ‘ilun’ (eta ez ‘illun’).

2- Hitz hasieran ‘x’ esaten da (beste euskalki batzuetako ‘tx’-ren orde): ‘ximino’ (‘tximino’), ‘xirula’ (‘txirula’), ‘ximista’ (‘tximista’).

3- Erderako -on amaiera -oin egiteko joera egon da: ‘arrazoina’ (‘arrazoia’), ‘botoina’ (‘botoia’)



# EZAUGARRIAK: MORFOLOGIA

1.- Izenordainetan ‘nehor’ (‘inor’ adierazteko) egiturakoak erabiltzen dira: ‘nehun’ (‘inon’)

2.- Deklinabidean ‘norekin’ eta ‘norekilan’ erabiltzen dira.

3.- Lekuzko kasuetan ‘nora’ eta ‘norat’ erabiltzen dira.



# EZAUGARRIAK: ADITZA

- 1.- Aginteran eta ahaleran aditz oina gordetzen da: ‘etor hadi’, ‘erabil daiteke’...
- 2.- Euskara nafarrak bezela, aspektu-gertakizuna eratzeko -en eta -ko erabiltzen ditu: ‘izanen’, ‘egonen’, ‘hilen’...
- 3.- Aspektu burutugabea adierazteko -iten egiten du: ‘erraiten’, ‘egoiten’...



# EZAUGARRIAK: SINTAXIA

1.- Nominalizazioak: ‘lagunen ikustera noa’ (= ‘lagunak ikustera noa’), ‘etxearen erosteko dirua’ (= ‘etxea erosteko’)

2.- Galde perpausak: bai/ez erako galderetan zenbaitetan aditz laguntzaileari -a itsasten zaio, horrela, ‘etorri dea?’ (= ‘etorri da+a?’), ‘egin duzula?’ (= ‘egin duzu+a?’)

EUSKALKIEN MAPA, LEHEN ETA ORAIN


Kokio Zuzazok  
eginikoa

- Mendebalekoa
- Erdialdekoa
- Nafara
- Nafar-lapurterra
- Zuberotarra
- Tarteko hizterak



1869an  
Luis Luziano  
Bonapartek  
eginikoa

- Bizkaitarra
- Giputza
- Lapurterra
- Hegoaldeko nafarra
- Iparaldeko nafarra
- Ekialdeko behenafarra
- Mendebaldeko behenafarra
- Zuberotarra



ITURRIA: BERRIA